

252

2017ko azaroa

TOKIKOM



LARRAUNGO KULTUR ONDAREA, GUREA, DENONA

NESKAK ERE KANTOREAK GARA

Betelu herrian antzinatik, ziur ez dakigu noiztik, errege bezperan kantoreak deituriko mutil gazteen talde bat etxez etxe eskean koplak abesten joaten da. Mutilak dira soilik ekintza honetan parte hartzen dutenak eta badira urte batzuk jada, neskek talde horretan sartzea zalantzan jarri zenetik.

Horregatik idazten dugu gaurkoan Mailopera. Gure iritzia eman eta herriak gaiaren inguruan eztabaidatu dezan pixka bat.

Neska talde bat bildu gara, adin ezberdinetakoak eta argi dugu talde horretan sartu nahi dugula. Mutilen eskubide berdinak ditugula iruditzen zaigu, ondo pasatzeko gogoia eta herriak hainbeste urtetan zehar mantendu duen ohiurarekin aurrera egin nahi dugu, ohitura horren barruan neskek ere sartuta.

Duela urte batzuk, proposatu zitzaizen kantoreei neskek ere sartzea eta hauek ezetz esan zuten. Aurten ere berdin gertatzen ari da, neskek kantoreetan parte hartzea proposatutakoan, inongo hausnarketa edo gogoetarik egin gabe gehiengoaren erantzuna erabateko ezetza izan da, batzuen kasuan ere neskek sartuz gero, hauek taldetik atera egingo direnaren mehatxuarekin.

Lagunartea izeneko taldean gaude Beteluko neska-mutil guztiak eta bertan festak antolatzen dira baita antzeko ekintzak ere. Guk orduan hauex galdetzen diogu gure buruari: "Zerbait antolatzeko eta lanean aritzeko nesken laguntza eta neskek onartuak daude, baina ondo pasatzeko ekintza bat denean, ezin al dugu parte hartu? Zergatik izango ote da hau?".

Espero dugu aurten kantoreetan sartzea eta azkenik kantoreetan neskek zein mutilak gaudela esatea. Herriak hitz egitea nahi dugu eta alde daudenak elkartasunean aritzea gure helburua lortzen laguntzeko. Hala ere, aurten ez badugu lortzen, hurrengo urteetan ekin eta ekin egingo dugula alde aurretik ohartarazten dugu, ez baitugu amore emango!

Beteluko neskek.

ALTSASUKO GAZTEEI ETA HERRIARI ELKARTASUNA

Larraungo elkartasun taldekook, Lekunberriko pesten hasieran elkarretaratzea egin genuen Altsasuko gazteei eta herriari elkartasuna adierazteko. Orain urtebete izandako gertaerak eta hauek hartu duten bilakaerarengatik, hamarnaka herritar bildu ginen Altsasuko herriaren kontrako kriminalizazio saiakera eta estatuko fiskaltzatik egindako eskaera neurrigabeak salatzen (62 urte eta 6 hilabeteko eskaera gazteetako batentzat, 50 urte sei gazterentzat eta 12 urte eta 6 hilabete zortzigarrenentzat). Gaur egun gizartearen gehiengoa bizikidetzaren demokratikoa eta normalizazio politikoaz gozatzeko eskubidearen alde dagoela uste dugu. Eta lanean jarraituko dugu bakea, demokrazia, elkarbizitza, justizia eta pertsona guztien giza eskubideen errespetuagatik.



Larraungo Elkartasun Taldea

Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi mailope@labrit.net-era hilaren 20a baino lehen.

AILOPE:
GUNDU MAILO
LAGUN

Mailopeko bazkidea izan nahi duzu?
mailope@labrit.net

SAN MIGUEL
gasolindegia

Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Atallu

AA

FISIOTERAPIA
Andoni Ayerdi Olascoaga
609 536 002 · 948 604 789

Iturritak kalea 7, 31870 Lekunberri
andoniaofisioterapia@gmail.com

CARPINTERIA Hnos. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriazpiroz.com

OGI-BERRI ALTZA

Aralar kalea, 41
Lekunberri

OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884

AURRERA
TABERNA
ARALAR, 15
948 60 47 24

TAXI
SOROA
609 168 217
Bederatzi plaza



06



16



20

05 BERTSO BERRIAK: Luis Mari Larreta

06 ELKARRIZKETA: Nati Etayo.

10 MOKOKA

11 KUXKUXEAN: Azaroko zorion agurrak.

12 BATZARRE

14 LUZE ETA ZABAL

16 ERREPORTAJEA: Ondare Kultur Taldea.

20 KULTURA

22 ELKARRIZKETA: Mikel Betelu.

24 KIROLA: Beti Kozkorreko nesken taldeak.

26 HITZ ASPERTUAN

27 KLIK EGIN!

28 PLAZATIK PLAZARA: Errazkingo Txirrika Elkarte.

31 KONTU TXIKIAK

• **MAILOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:**

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitzu eta Uztegi.

• **ARGITARATZEN DU:**

Mailope Kultur Elkarte.
L.G.: NA 719/93
Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.
issuu.com/mailopealdizkaria

• **ERREDAKZIOA:**

Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza eta Andoni Tolosa.

• **ARGAZKIAK:**

Labrit, Maider Agirrebarrena, Ondare Kultur Taldea, Nafarroako Bertsozale Elkarte, Juan Antonio Garaikoetxea, Ricardo Bosch, Mikel Betelu, Kristina Askarai, Sugoï Etxarri, Laida Zabaleta eta Rafa Etxarri.

• **PUBLIZITATEA:**

Labrit Multimedia - 948 210 103 - mailope@labrit.net.

• **MAKETAZIOA:** Araitz Amatria.

• **TIRADA:** 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udal, Kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Nafarroako  Gobierno de Navarra

LABRIT
MULTIMEDIA


HAU EZ DA ZABORRA, ONGARRIA ETA ENERGIA BAIZIK

Gai organikoen hondakinak bereizi eta birziklatzea eskuzabaltasunez eta zurekiko eta etorriko direnekiko konpromisoz jokatzea da. Zure laguntzak gas kutsatzaile gutxiago igortzeko, lurrerako ongarria ekoizteko eta energia berriztagarriak sortzeko aukera ematen du.

**EZ EGIN PASO
ORGANIKOAZ!**



Aendialdea
ankomunitatea

 Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

¿MARRONES? SI, GRACIAS
ORGANIKOAK? BAI, MILA ESKER



SUTEA WISCO LANTEGIAN

Sua piztu zen joan den urriaren 21ean Beteluko Wisco lantegian. Iluntzean gertatu zen ezbeharra, molde batean zeuden hondakinak deskargatu eta gelditzen ziren txingarrekin zakuak su hartu zuten. Langileek larrialdietara deitu zuten eta Tolosako eta Kordobilako suhiltzaileek etorri behar izan zuten, baina berehala lortu zuten sua itzaltzea.



KATALUNIAREKIN BAT

Kataluniako urriaren 1eko erreferendumak eta ondorengo independentzia deklarazioak sortutako eztabaidak herritarrak mugiaraztera bultzatu zituen gurean ere. Hainbat elkarretaratze eta kazerolada egin zituzten kataluniarrei elkartasuna adierazteko.



BUZOIA JARRI DUTE PAGOTAN

Araxes Klubak antolatuta mendi irteera egin zuten joan den hilean Pagotara. 22 lagun inguru irten ziren Arribeko plazatik eta mendi tontorrean buzoia jarri zuten. Beraz, hemendik aurrera, mendizaleek euren mezuak uzteko aukera izanen dute bertan ere.

bertso berriak Mailoperi jarriak: Luis Mari Larreta (Aldatz)

Doinua: Goizian goizik jeiki ninduzun.

**Euria goitik behera eta
baserrian su bajuan**
hola egoten zien zaharrak
lana eginda soruan
egunen zehar indako lanak
reparatuz deskantsuan
bien bitarten etxeko andrekin
zer jana prestatzen zuan.

Ontto biltzea junda aiaiai
ontto guzik umel-umel
hori gutxi balitz gorputz guzia
bapaten jarri zait ospel
ezer biltzerik ez dut izan da
itzuli oso goibel
berriro ere eongo gea
asko jan gabe ta zimel.

Hurrengoarentzako puntua:
Zonaldean goitik bera
dijoa euskera

Oinak:
Kezka, gainezka, ez ta, iheska.



“Zitara, organoa baino espresiboagoa da”

Nati Etayok 31 urte daratza Lekunberriko Klara-tarren komentuan. Uhar-ten jaioa da eta 52 urte ditu. Hamalau ahizpa bizi dira egun Lekunberrin eta Nati izan da iritsiz geroztik komentuko organu-jotzaile. Baina oso maitea duen beste musika tresna bat ere jotzen du, zitara. Estatuan oso gutxi dira egun zita-ra-joleak.

Nolatan erabaki zenuen moja sartzea?

Ni 21 urterekin sartu nintzen, baina hemen nire lehen esperientzia izan nuen 17 urterekin. Nire familia ez zen bereziki erlijiosoa, nik fedea herriko apaizak ematen zizkigun klaseen bitartez jaso nuen. Eta baita tarteka etxera etortzen zitzaigun amonaren bitartez ere. Baina nik txikitatik banekien nire bizitzan bazela Norbait. Zaintzen, babesten eta gidatzen ninduen Norbait. Nik bizitza normala nuen, nire familiarekin, lagunekin, ikasketekin... Baina Jainkoaren dei hori erabat hor zegoen nire bizitzan. Herriko eskolan ikasi ondoren, goi-mailako ikasketak egitera seroren ikastetxe batera joan nintzen eta bertako moja batekin nire sentimenduak partekatzen hasi nintzen. Ha-

“Musikak nire onena ateratzen zuela ohartu nintzen”

lako beharra ikusten nuen gizartean ez nekiela norantz zuzendu, baina Jainoarentzako bizitzeark erakartzen ninduen. Eta ez nuen Jainkoaren eta nire arteko bitartekorik nahi, ez nuen hezkuntzaren eta osasungintzaren bitartez beregana hurbildu nahi. Moja hark jesulagun batekin harremanetan jarri ninduen eta errespetu handiz kontenplaziozko bizitza egiten zuten hainbat komenturen helbideak eman zizkidan. Helbide horien artean zegoen Lekunberrikoa eta garai hartan harrera etxea zuen bakarra zenez aurkeztu egin nintzen.

Nola?

Modu diskretuagoan egiteko, ikaskideekin batera taldean etorri ginen. Mojek asteburu pasa bat antolatuta zuten. 17 urte nituen orduan eta gogoan dut hona etorri nintze-nean ohartu nintzela hau zela nahi nuena eta bilatzen nuena. Baina beharrezkoa zen erabakia hartzeko denbora hartzea eta nire bizitzarekin jarraitu nuen. Lan egiteko, familia bat osatzeko eta bestelako aukerak izan nituen bizitzan, baina nik bakea nire burua Lekunberrin ikusten nuenean baino ez nuen sentitzen. Eta 21 urterekin erabakia hartu nuen.

Zure senideek ulertu al zuten erabaki hori?

Ez, hasieran asko kostatu zitzaien. Nire garaian jada bokazio krisia hasia zen. Ni sartuz geroztik ez da inor gehiago sartu hemen. Baina

Nati 21 urterekin hasi zen musika ikasten eta egun, pianoa, organoa eta zitara jotzen daki. Arg: Labrit.



nire senideek hartutako erabakia errespetatu egin zuten. Nire irakasle izan ziren serorekin sartzeko esaten zidaten, horrela gutxienez elkar ikusteko aukera izanzen genuelako, ez zuten ulertzen zergatik ezin genuen nahi bestetan elkar ikusi. Baina gure bizitza oso normala da, oso familiarra. Ez gara familiako ospakizunetara irteten, baina gure senideek behar gaituztenean, giza behar bat dagoe-nean eurekin egoten gara.

Hemen sartzeko jada pianoa edo organoa jotzen al zenuen?

Ez, nik 21 urterekin ez nekien musikari buruzko ezer ere. Baina musika tradizioa badago nire familia. Nire aitak saxofoia jotzen zuen eta musika irakurtzeko erraztasun handia zuen. Amak ere ahots ederra zuen, bizilagunek askotan leihoak irekitzeko oihu egiten zioten nola abesten zuen entzun nahi zutelako. Etxean zegoen zerbait zen, baina nire herrian ez zegoen musikarako tradiziorik eta ikasteko aukerarik. Aita kamioilaria zen, denbora asko egoten zen etxetik kanpo eta ez zuen guri erakusteko aukerarik ere izan. Hona etorri nintzenean, musika ikasketak zituen organo-jole bat zegoen, Sor Maria Clara. Garai hartan, organoa jotzea izaten zen organo-jolearen ardura nagusia. Baina ni sartzeko jada zaharturik zegoen eta garun isuri bat ere izan zuen. Horregatik sartu eta hurrengo egunean musika ikasi beharko nuela esan zidaten.

Eta nola ikasi zenuen?

Oinarrizko lehenengo nozioak ahizpa hark erakutsi zizkidan. Niretzat aurkikuntza bat izan zen, musikak nire onena ateratzen zuela ohartu nintzen eta erraztasun handia nuela. Gero Don Jesus Jaimerenaekin hasi nintzen eta ondoren, Nieves Goikoe-txearekin. Berarekin pianoa, armonia



121 soka ditu zitarak. Arg: Labrit.

eta konposaketa ikasi nuen. Mikel Errok ere asko irakatsi zidan eta geroa erlijioso benediktar bat hasi zen etortzen organoa irakastera Don Luis Perez.

Komentutik atera gabe, hemen bertan ikasi zenuen dena...

Bai ahal dela ez gara ateratzen. Baina Gaztela Leonen kontenplaziozko erlijiosoentzako ikastaro batzuk antolatzen hasi ziren. Bertan organo oso onak daudelako, horietako asko monasterioetan daude baina jotzen zekiten ahizpak behar ziren. Lucia Riañok lan handia egin zuen organo horiek mantentzeko eta ikastaro hori antolatzen hasi zen. Ezaguna nuen ahizpa baten bitartez gonbidatu ninduten ni eta urtero joaten hasi nintzen.

Nolatan hasi zinen zitarra jotzen?

Frantzian eta Herbeheretako monasterioetan zitarak zeudela ezagutzen zuen pertsona batek zitarra bat utzi zion *Claune* izeneko elkarte bati dohaintza moduan musika tresna

“Komentuan sartu eta hurrengo egunean musika ikasi beharko nuela esan zidaten”



Maggie Yerent zitarra-jole frantsesa izan du irakasle. Arg: Labrit.

“Beste parroketako jendea ere etorri izan da zitarra entzutera”

hori hemengo monasterioetan bultzatzeko. Lucia Riaño irakasleak eskaria egitera animatu ninduen eta Frantziatik zitarra bat bidali zidaten.

Zure kabuz ikasi al zenuen jotzen?

Ekarri zidatenean ikusi nuen eskuin eskua pianoaren teklatuaren antzekoa zela eta bestea awkordeak zirela. Afinatzaile bat ere lortu nuen. Eta gero, zitarra bat erosi zuen erlijioso euskaldun batek Irunen ikastaro bat antolatu zuen eta estatu osoko zitarra-joleak etorri ziren. Maggie Yerent irakasle frantsesa izan genuen irakasle. Frantzia musika tresna hau kontserbatorioetan irakasten dute. Maggie konpositorea da eta obra klasikoak zitararekin jo ahal izateko egokitzen ditu. Berarekin hiru ikasturtez ibili nintzen eta gero nire aldetik denbora eskaini diot.

Nola hasi zinen elizkizunetan zitarra jotzen?

Guk Saindua egun osoan zehar erakusgai izaten dugu eta ni erre-serban jotzen hasi nintzen. Ohartu nintzen, batez ere udan, Ayestaran Hotelean zeuden adineko emakumeak zitarra jotzen entzuteagatik etortzen zirela komentura. Emakume haiek lehen emanaldia antolatu zidaten. Eta horrela animatu nintzen eukaristian ere jotzera. Baina jaunartzean eta horren ondoren baino ez dut jotzen, edo bestelako ospakizunetan. Beste parroketako jendea ere etorri izan da zitarra entzutera.

Zein da zitarra jotzeak duen zailtasunik handiena?

Organoa jotzerakoan behatzak jarri eta badakizu non dauden nota guztiak. Zitaran hori zaila da eta begirada igo eta jaisten ibili behar duzu, behatzak eta partitura begiratzen joateko. Horregatik partitura zatika buruz ikasi behar da, bestela erraza da galtzea. Nik ez dut zitarra abestiak laguntzeko jotzen, ez diolako tonuari gehiegi eusten, baina organoa baino askoz ere adierazgarriagoa da, intentsitatea zerorrek ematen diozu. Bukatzeko aipatu nahiko nuke, komentutik nahiz munduan, musikaren bitartez nahiz norbere betebeharren bidez egin dezagun denok bakearen eta ongizatearen aldeko melodia. Eta zitarra entzutera gonbidaturik zaudete!

GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-
LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA

urrutia
enea

etxeko hestekiak

LEKUNBERRI

OTXOTORENA
okindegia

ARRIBE

ADIII! TLF BERRIA:
948 51 30 32

panaderia okindegia

GALBURUeco

Egurrezko laboreko ogi ekologikoa

Alde Zaharra 50 LEKUNBERRI 31870
948 50 40 42

Nor da Nor?



Aurreko alean kaleratutako argazkia
Beteluko inauterietan ateratakoa da.
Ezkerretik eskuinera:

Lontxin Zubillaga, Martin Sotil, Iñaki
Goikoetxea, Juan Ignacio Elizalde,
Javier Goikoetxea eta Juan Carlos
Buldain.

nor da nor?

Nor da Nor?



*Nortzuk azaltzen dira
argazkian?
Non ateratakoa da?
Noiz ateratako argazkia da?*

Bidali iezazkiguzu zure argazkiak denon gozamenarako
mailope@labrit.net helbidera edo 638 652 339ra deitu
eta kudeatuko dugu.

 **ALIPROX**
Lekunberri
janaridenda
hamabostaldi
eskaintza bereziak

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA
 696 658 288
LEKUNBERRI

 **SUAKONTROL
LEKUNBERRI**
*Suaren
kontrako
plakak*
Oztegin kalea 25,
Lekunberri
948 60 48 96 (Tel.)
948 60 45 16 (Faxa)
suakontrol@grena.es
www.grena.es

IORTIA CLINICA DENTRAL HORTZ KLINIKA
Juanjo Gaitte García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591
Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsatsu: 948 467 603 · 667 66 17 69
ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

Demokrazia ote?



●● Pello Azpirotz

Kaixo Mikel! Zer moduz joan dira aurtengo festak? Oraingoan eguraldia lagun izan duzue egun guztietan. Gaurkoan landuko dudan gaia seguruenik denek entzuna izango duzue, pil-pilean baitarama denbora dezente. Imajinatuko duzuen bezala Kataluniaren inguruan ari naiz.

Kataluniako egoera korapilatsua da eta egoera honen hasiera nire ustetan, kataluniarrek onartutako estatuari Espainiako gobernuak eman zion ezezkoan dago. Ordutik aurrera hasi zen independentismoa geroz eta indar gehiago hartzen (Diada eguneko parte-hartzearen bilakaerak argi erakusten du). 2014ean kontsulta ez loteslea egin zuten eta duela hilabete bat erreferenduma. Oztopo ikaragarriak izan zituzten aurrera eramateko (errepresio bortitza nazioartean ere), baina hala ere, 2.300.000 pertsonak bozka ematea lortu zuten eta kalkuluen arabera, beste 700.000 pertsona bozka emateko aukerarik gabe gelditu ziren. Noski beste jende multzo batek ez zuten bozkatu nahi, baina zifra horiek oso kontutan hartu beharko lirateke.

Nire galdera da: Hautestontzi bat jartzea nola izan daiteke legearen aurkakoa "demokrazia" batean? Uste dut berriro ere argi gelditu dela Espainian dagoen demokrazia maila, kataluniarrek demokrazia lezio bat eman digute denoi. Galdeketak bermerik ez balu izango Espainiako gobernuak ez zuen horrenbesteko esfortzua egingo hura geldiarazteko, beste 9-N bat izango litzateke soilik. Eta azkenekoa ANC eta Omniuneko buruak atxilotzea, bi pertsona gehiago kartzelara beraien ideia politikoen-gatik eta 155. artikulua martxan jartzea.

Zorionez erreferendumaren egunean Katalunian egoteko aukera izan nuen, egunaren bilakaera bertatik bertara ikusteko eta jendearen ikuspuntua ezagutzeko. Beraingandik asko ikasi dezakegula uste dut. Oraindik luzerako kontua dela uste dut. Zuk zer iritzi duzu honen inguruan Mikel? Nola bukatuko dela uste duzu? Hurren arte!




●● Mikel Hernandezena

Kaixo Pello!!! Aurtengo festak primeran joan dira! Katalunia... Lehenik eta behin, aipatu nahiko nuke estatu espainolaren jarrera lotsagarria izan dela. Azken finean, baiezkoa nahiz ezezkoa atera zitekeen, baina auzi honen oinarrian, demokrazia batean iritzia eta bozka ematea, legearen aurkakoa izatea nola posible izan daitekeen pentsatzea da. Adibide bat jartzekotan, Lleidan bere bozka eman zuen eta gerrian Espainiako bandera zuen gazte baten jarrera aipatu nahiko nuke, edota kaleetan independentistak nahiz Espainian gelditzearen aldekoak ziren pertsona askoren arteko giro ona. Hori da benetan demokrazia bat, jendearen arteko errespetua, eta ez Mariano Rajoyren gobernuak egin duen bezala, Espainiako polizia osoa mobilizatu eta bozka ematen zutenen aurka kolpeka ibiltzea, izugarriko indarkeria erabiliz. Horregatik, boza hain egoera zailean eman zuten guztiak zoriondu nahi nituzke. Baiezkoa edo ezezkoa modu askotan eman daiteke, baina XXI. mendean erabakitzeke eskubidea ukatzen duen estatu batek bere burua zuzenbidezko estatutzat hartzea barregarria bezain lotsagarria iruditzen zait.

Bigarrenik, ANC eta Omniuneko buruen atxilotetak argi uzten du PPko eskuinaren jarrera autoritario eta antidemokratikoa. Erabakitzeke eskubidea urratzeaz gain, pentsamendu askatasuna behin eta berriz urratzen ari direla erakutsi dute. Ez zaie deus ere pasako ustelkeriaz lapurtutako diru guztiarengatik, baina beraiek bezala pentsatzen ez duten jendea kartzelara bidaltzerako orduan, beraien burua hain demokratatzat duten hauek ebidentzian geratzen ari dira.

Azkenik, ez dakit nola bukatuko den kontu hau. Artikulu hau idatzi baino ordu batzuk lehenago Kataluniako parlamentuak independentzia aldarrikatu du eta Madriletik dagoeneko neurri errepresiboak hartzen hasiak dira. Rajoyren immobilismoa ikusita, auzi honek luzerako irauongo duela iruditzen zait Pello. Hurren arte!!!





Saioa Intxaurren eta Joritz Otermin
 Urriak 24 eta azaroak 13, 20 urte.
Zorionak bioi! Ederki pasa zuen egunetan eta jarraitu beti bezain irribarretsui! Muxu bat zuen familien partetik!



Ibai eta Lander Eraso Gorrotxategi
 Azaroak 22, 6 urte eta azaroak 21, 8 urte.
Zorionak bikote! Asko gozatu zuen eguna eta muxu erraldoi bana etxekoen partez... Muuuuak!!!



Stanis
 Azaroak 9, 15 urte.
Zorionaaak antxoilla! Ongi pasa eguna, zure lagunen partez!



Urko Tolosa Iraola
 Azaroak 10, 5 urte.
Zorionak eta urte askotarako politte. Oso ondo pasa zure urtebetetze egunean. Muxu haundi bat June, aitatxo eta amatxoren partez.



Laida Garmendia Huarte
 Azaroak 8, 7 urte.
Urte askotarako Gastesikoen partez!!! Mila muxu!!!!



Laida Garmendia Huarte
 Azaroak 8, 7 urte.
Zeinen handia!!!! Zorionak eta ongi pasa zure eguna, sorgintxo. Muxuk etxekoen partez.

Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
 Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren 20a baino lehen.

Lagunasesoria S.L.
Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es

MAILOPE!
 GUNDU MAILOPE!
 LAGUNDU MAILOPE!
 LAGUN

Mailopeko bazkidea izan nahi duzu?
mailope@labrit.net

OKM
ABOKATUAK
 Eukeni Celaya Zubietta · Mikel Iraola Sarasua
 Arretxea, 1º, Alli. Tfnoa: 609 130 555

LEHENENGOA ETA ARRAKASTATSUA

Araizko zapoeren 1. feria antolatu zuen joan den hilaren azkeneko igandean Araitzen lan eta bizi batzordeak. Hamabi postu jarri zituzten bailaran ekoizten diren produktu ezberdinekin, ogia, sagardoa, mermeladak, intxaurrak, artelanak, sagarrak, gaztak... Bertako talogileak ere taloak egiten ibili ziren eta txikienekin tailer bat egin zuten. Ekitaldi nagusian batzordeko kideek euren proiektuaren aurkezpena egin zuten, helburua bailaren etorkizuna besteak beste bertako produktu osasungarrien kontsumoarekin bultzatzea da. Larraungo bertso eskolako Aitor Irastortza eta Joana Ziganda ere bertan izan ziren bertotan. Antolatzaileak pozik daude goizak eman zuenarekin, espero baino jende gehiago hurbildu baitzen Arribera, Gipuzkoa eta Iruñea aldetik, Larraundik... Eguerdian bertako produktuekin egindako bazkaria izan zuten elkartean eta 40 lagun inguru elkartu ziren.



LARRAUNEN ETORKIZUNA ERAIKITZEKO TOPAKETA AZAROAREN 24AN

Bizi Larraun Bizi taldeak topaketa bat antolatu du orain arte egindako lana azaldu eta baloratzeko eta aurreikusten dituzten proiektuak aurkezteko, besteak beste Larraungo agenda, garapen topaketak eta elkartearen sorrera. Topaketa azaroaren 24an izanen da, arratsaldeko 18:30ean Lekunberriko batzar aretoan.



ESKA EZAZU ZEURE SASKIA!

Aurten ere martxan da Errigorak antolatutako Nafarroako hegoaldeko uzta euskarari puzka ekimena. Nafarroako hegoaldeko 25 ekoizleren produktuekin osatutako bi saski daude aukeran, beltza (melokotoia almibarrean, pikillo piperrak, orburuak, zainzuriak, ardoa, ozpina, potxak, kardoa, almendrak, oliba olioia, mahats zukua, pikillo saltsa, aran mermelada) eta zuria (melokotoia almibarrean, pikillo piperrak, orburuak, zainzuriak, ardoa, ozpina, pasta, arroza, teilak, patxaran-pastak, tomateo olioarekin, pikillo piper mamia eta molineritoak).

50 euroren truke saskia jasoko duzu eta ordaindutakoaren %25 Nafarroako hegoaldeko euskalgintzara bideratuko da. Besteak beste, Lodosa, Tuter eta Bianako ikastolen biziraupenerako, Erriberako AEK indartzeko eta D ereduko lerroak babesteko eta zabaltzeko dinamikak biderkatzeko erabiliko da bildutako dirua. Azaroaren 14an amaituko da eskaerak egiteko epea eta azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitarte banatuko dira saskiak. Hurbildu zaitetz euskaltegira eta egin eskaera.

Informazio gehiago:
www.errigora.eus

ESLOVENIATIK ETORRITAKO EMAKU-MEZKOEN ABESBATZAK KONTZERTUA ESKAINIKO DU AZAROAREN 4AN

Nafarroako Nazioarteko XXIII. Ziklo Korralaren baitan Esloveniako Carnice Women's Choir abesbatzaren kontzertua izanen da azaroaren 4an, arratsaldeko 19:00etan Lekunberriko parrokian.



ZIZA BILA...

Bizi Larraun taldeak Altxorraren bila ateraldia antolatu zuen joan den hilaren 21ean. Aurtengoan gainera, altxor preziatu horiek zizak izan ziren. Hurrengo egunean Lekunberri erakusketa mikologikoa zela aprobetxatuz zizak bila ibili ziren. Goizeko hamarretan kuadrilla ederra irten zen Aldaztik eta herriko basoetan barna ibili ziren, bertako baseliza, laster-lekua eta gaztainondoak ezagutuz.



ABENDURAKO AMAITUKO DITUZTE BETELUKO AZPIEGITURA LANAK

Uztailaren amaieran hiru obra abiarazi zituen Beteluko Udalak. 2009-2012ko Azpiegituren Planean aurkeztutakoak dira hirurak eta 2008. urtean ziren egitekoak. Krisia dela eta atzeratu egin dira, baina dagoeneko martxan dira. Antigua kalean hirigintza lanak egiten ari dira, ur zikinen hornidura, edateko uraren hornidura eta euri uraren bereizketa eta hordniduraz gain, zolaketa ere egiten dabilta. Bestalde, Azkeneko urtetan hainbat luizi izan dira herriko ur-biltegiara doan bidean. Hasiera bateko proiektua bide hori konpontzea bazen ere, azkenean bide berri bat eraikitzea erabaki du Udalak. Txoarreko bidean eginen dute ur-biltegiarako sarrera. Eta hirugarren azpiegitura lana hilerrian egingo da. Inoiz erabilpenik eman ez zaion hilerriz zibilean aparkalekua eginen dute, hilerriko erdiko kalea urbanizatu eta etxeko teilatua konpondu egingo da. Proiektu guzti hauek batera esleitu ziren. Hiru enpresa aurkeztu ziren esleipenean eta Udalaren irizpideen arabera, proposamen ekonomiko eta tekniko onena aurkeztu izanagatik Apezetxea Anaiak S.L. enpresari eman zitzaion lanen ardura. Guztira, 600.000 euro baino gehiagoko kostea izanen dute azpiegitura lan hauek. Gainera, lan hauek aprobetxatuz eta diru-laguntza horien barruan sarturik, Araxes errekan, Lakobeikoan, eroritako pareta konponduko dute.



Dieta osasuntsua eta anitza

Uda bukatu da, ikasturte berria hasi da eta gehienok itzuli gara gure eguneroko zereginetara, bai lanera, bai ikasketetara, bai eguneroko estres eta erritmora.

Aldaketa edo birmoldaketa hau guztizkoa izateko, beharrezkoa da gure dietan berriro ere normaltasun batera itzultzea, udan zehar gorputzari emandako gutuziak ahaztu eta gaur egun hain entzuna den "detox" edo "garbiket" egitea.

Ondo, ideia denok ulertzen dugu eta behin edo bitan izan dugu buruan, baina burutik ekintzara pasa eta batez ere ekintzari jarraikortasuna eman behar diogunean sortzen dira gure buruhaustea. Horrek ordea ez luke horrela izan behar. Zergatik? Dieta hitzaren inguruan daukagun pertzepzio okerragatik.

Dieta pisua galdu eta argaltzearen ideiekin erlazionatzen dugu zuzenean eta hori sakrifizio eta esfortzuarekin. Baina dieta asko eta ezberdinak aurki ditzakegu, pertsona bezain anitzak dira dietak eta dieta bat egon daiteke pertsona bakoitzeko. Guretzat egokiena, gehien gustatzen zaiguna eta osasuntsuena zein den aukeratzea besterik ez dugu egin behar. Gure beharretara gehien egokitzen dena. Askok uste dutenaren aurka ez dugu zertan hainbeste gustatzen zaigun elikagai hori alde batera utzi beharrik, beti ere mediku, nutrizionista edo dietistaren agindu zuzena ez bada.

Dieta batean garrantzitsuena gure behar guztiak modu egokian asetzeta da, pertsona guztiak ditugu orokorrean behar berdinak neurri



batean edo bestean. Bizitzeko beharrezkoak ditugun sustantzia eta nutrienteak berdinak dira. Baina elikagaiak prestatzeko moduan nahiz kantitatean egongo dira ezberdintasunak besteak beste. Azken hauek ematen digute dieta anitzak sortzeko aukera. Eta gurea aukeratzeko askatasuna.

Horrek ordea ez du esan nahi dieta guztiak edo elikagaiak prestatzeko modu guztiak direnik egokiak edo baliagarriak denentzat. Ezta dieta berberak bizitza guztian zehar baliu duenik. Dieta uneoro pertsonari egokitu behar zaion zerbait da, bere behar eta gabeziara moldatu beharreko zerbait. Baina badira oinarrikoak diren betebeharrak dieta guztietan.

Hasteko aniztasuna oso garrantzitsua da, eta aniztasun hau eguneroko bizitzan txertatzean

egongo da dieta baten gakoa. Hau txikitatik egin behar da, txikitatik ikasi behar da denetarik jan eta janariaz gozatzen. Elikagaiak ahalik eta modu osasuntsu eta garbienean prestatzea eta freskoak erostea ere oinarrikoa da. Egia da honek askotan imitazioak dituela denboran eta ekonomian, baina zein inbertsio izan daiteke hau baino hobea?

Dieta osasuntsua jarritzea ez da kapritxoa, gaixotasun eta gabezia askoren aurka daukagun babes bide bakarra da, eta gure esku dago. Dietak ez dira inoiz hartu behar debeku moduan, gure bizi estilara eta egunerokotasunera moldatu behar dira. Animatzen bazara eta bizitza pixka bat hobetu nahi baduzu badakizu, aldaketa pare bat besterik ez dira, baina ondorioak betirako izango dira.

Bizitzaren zentzua

Batzuetan, gelditu eta nire buruari galdetu izan diot ea zertara etorri naizen mundu honetara. Bizitzak ba al du zentzurik? Ala jaio garelako, besterik gabe, bizi behar al dugu? Mundu honetan den denak zentzurik ote du? Sufrimenduak ere?

Inoiz jakin edo entzuten dugu, norbaitek bere buruaz beste egin duela berarentzat bizitzak zentzurik ez zuelako. Zergatia eta zertarako galduta, hobe bukatzea. Krisi sakon batean sartuta, edozeinek hauta dezake mundu hau uztea eta horrela sufrimenduari bukaera ematea. Baina, hemen bi arrazoi desberdin nahastan direla iruditzen zait.

Bigarren mundu gerran, naziek milioika lagun atxilotu eta zigor erremuetara eramaten zituzten. Asko eta asko, zuzenean hil, batez ere gas ganbaretan. Baina, presoak baliagarri aurkitzen bazuten, normalean, ez zuten hiltzen. Presoak, esklabo bihurtzen zituzten eta horrela tratatu. Inongo eskubiderik ez eta behar minimoetan mantendu. Goseak, nekeak, hotzak, ahuldadeak, era guztietako gaixotasunak eta depresioak hiltzen zituen poliki-poliki preso esklabo haiek. Errepideak, trenbideak, kontzentrazio eremuak, meagintza eta era guztietako lan gogorrek egitera behartzen zituzten. Bertan sartzen zutenari, ia ez zitzaion inolako itxaropenik geratzen bizirik ateratzeko. Baina batzuk, bertan urte luzez eta era guztietako sufrimenduak pasatuta ere, bizirik atera ziren. Hauetako bat Viktor Frankl, psikiatra judutarra, izan zen. Une ikaragarri latzak pasa zituen eta hainbatetan



bere buruaz beste egiteko ideia etorri zitzaion burura, baina lortu zuen aurrera egitea, bere ingurukoak hiltzen ziren bitartean.

Haren profesioa medio, bere buruaren eta inguruko motibazioak, egoera emozionalak eta jarrerak aztertzeari ekin zion. Laster ikusi zuen, bizirik irauteak, neurri batean behintzat, motibazioarekin zuela lotura. Dena ez zela zorte ona ala txarra, txiripa edo kasualitatea. Ohartu zen bizirik irauteak lotura handia zuela motibazio zehatz batekin eta bizitzak bizitzeko zentzu bat zuela sinesten zutenek askoz ere aukera gehiago zituztela aurrera ateratzeko. Zentzu bat izateak suposatzen zuen askotan amore ez emateko arrazoia. Baina zein izan

zitekeen motibazio baliagarria? Hiru mota desberdin aurkitu zituen.

Lehenengo motibazioa zen kartzelatu aurretik erdi eginda geratu zen zerbait gerra bukatzean bukatzeko grina, edozer izan da ere. Nahikoa zen liburu bat erdi idatzita utzi izana, artelan bat bukatu gabe, zerbait garrantzitsua erdi egina izatea edo beste edozein gauza. Frankl psikiatrak berak, bere lehenengo liburu zeukan amaitu gabe eta bukatu egin nahi zuen. Maiz, kartzelako urte latz haietan gogoan izan zuen liburu.

Bigarren motibazioa, maitasuna zen, alegia, maite zituztenak berriro ikusi eta besarkatzeko izugarrizko gogo. Presoek maiz amets egiten zuten berriz maitatuekin elkartuko ziren egunarekin eta elkarri kontatzen zioten gogo hori.

Hirugarren motibazioa, espirituala zen. Erligioen sinesmenek eta lan espiritualak, indarra ematen zien batzuei sufrimenduan ere hazkuntza pertsonalerako bidea aurkitzeko.

Gerra amaitu eta kartzela haieetatik bizirik atera zirenek hiru motibazioetako bat gutxienez mantendu zuten haien baitan piztuta kartzelaldi osoan zehar, une latzenetan ere. Han ikasitakoa erabili zuen Viktor Frankl psikiatrak ondorioztatzeko bizitza bere osotasunean bizitzeko eta arazo larrienei aurre egiteko, beharrezkoa dugula bizitzari zentzu bat ematea. Pertsona bakoitza bakarra da, errepikaezina, eta bakoitzaren bizitzak zentzu bat dauka. Zentzua aurkitu eta betetzeak lagunduko digu bizitzan une latzenetan ere aurrera egiten.

Larraungo altxorraren zaindariak

Juanjo Zubieta, Ainhoa Fernandez eta Juani Zabaleta Ondare Kultur Taldeko kideak dira. 2014an sortu zuten proiektu honek Larraun aldeko ondare immateriala nahiz materiala bildu, berreskuratu eta zaintzea du helburu. Azaroaren 19rako, igandea, Oderizko trikuharrien ibilbidea antolatu dute.



Ainhoa Fernandez, Juani Zabaleta eta Juanjo Zubieta Kixmi Kultur Taldeak eraikitako iturrian, Mugiron.
Arg: Labrit.

Orain dela hiru urte hasi zen Ondare Kultur Taldea Larraungo ondarearen alde lanean. 2014an Nekazari Eguna berreskuratu zuen eta azken urte hauetan taldeak berak antolatzen du udan Gorritiko gaztelura egin ohi den mendi martxa. Baina hasierako lanetako bat Larraungo ondare immaterialaren bilketari ekitea izan zen. Juanjo Zubieta: *“la urte bete kosta zitzaigun elkarte legezatzzea, baina denbora gure aurka zihoanez eta 2014ko abenduan Larraungo ahozko ondarea jasotzen hasi ginen”*. Zaharrenak eta elkarrizketatzeko interesekoak ziren herritarren zerrenda egin zuten eta berandu baino lehen elkarrizketak egiten hasi ziren. Juanjo: *“Lehendabiziko elkarrizketa Arraratsen egin genuen. Inguruko zenbait gauza ere bildu ditugu, Araitzen esaterako, belarrean nola aritzen ziren azaldu diguten hainbat pertsona elkarrizketatu ditugu, baina gure lan eremu nagusia Larraun da. Arraratsen, borda batean bertako emakume eta gizon batzuekin garai bateko arto-zuriketaren prozesua grabatu genuen”*. Hamazazpi elkarrizketa egin dituzte dagoeneko eta bertako ohiturak, mitologia, kontuak, lanbideak eta bestelakoak bildu dituzte. Ainhoa Fernandez: *“Elkarrizketak aurrez presatu egiten dira, pertsona bakoitzaren ibilbidearen arabera galdetegia egokitu egiten dugu eta ondoren elkarrizketa bideokameraz grabatzen dugu. Gai batzuk orokorrakoak dira eta beste batzuk zehatzagoak, pertsonaren arabera. Xaboa edo lixua nola egiten*

zuten, garia eta artoa nola ereiten zen, txerri hiltzea, hemengo hiztegia, festak...". Oraingoz material guzti hori gordetzen ari dira eta etorkizunean erabakiko dute informazio guzti hori nola hedatu.

Ondare materialari dagokionez ere, berehala hasi ziren herritarrak deitu eta auzolanean toki eta ondasun ezberdinak berreskuratzen. Hiru laster-leku egokitu dituzte dagoeneko. Larraunen joan den mendean korrikalari asko zeuden eta apustu-zaleak are eta gehiago. Korrikalari horiek Tolosako edo Azpeitiko zezen plazan lehiatu aurretik herriko laster-lekuetan entrenatu ohi ziren. Juan Zabaleta: *"Herriko boteredunek edo jauntxoek korrikalari onak kontratatu eta mantenuaren truke entrenatzen ibiltzen ziren. Korrika-leku horiek zezen plazan neurrikoak izaten ziren, 100 metroko zirkunferentzia eta 30 metroko diametroa zuten".*

Uitzin Anizetoren laster-lekua garbitu eta egokitu zuten eta Allin ere Intzartzetako parajea Arruizko Txikitok erabiltzen zuen berreskuratu zuten. Aldatzen gaztainondo baten erdian zegoen korrika-lekuan ere izan dira lanean herritarren laguntzarekin, hori estreinatzeko dute oraindik. Allin eta Uitzin herri-kirol saioak egin baitzituzten aurkezpen modura. Juanjo: *"Hemen laster-leku asko zeuden, Lekunberrin, plaza zaharrea zegoen bat, egungo frontoiaren aurrean. Gorritin ere Uba aldera omen zegoen beste bat. Apirotzen, Malloak diskotekaren bestaldean, badakigu hor non-*



Martin Martirena elkarrizketatu zuten Uitzin.
Arg: Ondare.



Mugiroko errotetako harriak garbitu egin zituzten.
Arg: Ondare.

bait bazela bat. Albiasun, Miguel Okina hilerriaren ondoan entrenatu ohi zen laster-lekua dugu eta Etxarrin ere ez dakigu zehazki non baina ba omen zen". Berreskuratzen zailak ez diren arren, ez da erraza gaur egun horiek ezagutzera emateko erabilera ematea. Juanjo: "Panel informatibo batzuk jarri beharko ditugu eta egokia litzateke herriko festetan hainbat ekintza bertan egitea".

Mugiron ere ibili ziren auzolanean. Bertan, bere garaian Kixmi Kultur Taldeak jarritako errota harriak daude. Ongi gogoan du Juanjok, bera talde horretako kidea baitzen. Mugiroko bi errotetatik hartu zituzten harri horiek. Juanjo: *"Etxarri, Aldatz eta Arrui-*

zko errotak ziren, nahiz eta Mugiroko lurretan egon. Hiru herri horien artean eramaten zuten garai batean eta jada erortzeaz zeudela ikusita, harri horiek kontserbatzea pentsatu genuen errotak herriaren sinbolo zirelako. Lau harririkin iturri bat egin genuen, harri erdi bat zutik jarrita utzi genuen eta beste harri borobil batekin mahai bat eraiki genuen. Mahaiaren oinarrirako garai batean alorrean zapaltzeko erabiltzen zen alper bat erabili genuen eta eserlekuak ere egin genituen beste bi piezekin".

Mugiroko plazan jarritako errota-harri horiek denboraren poderioz belztuta zeuden eta iturria trabatuta. Euren lanari esker, dagoeneko garbituta eta konponduta dago.

●● Juani Zaleta, Juanjo Zubieta eta Ainhoa Fernandez.

Oderizko lau trikuharriak ezagutzeko ibilbidea

Hiru perratoki ere berreskuratu dituzue, Mugirokoa, Oderizkoa eta Etxarrikoa. Zuek ezagutu al zenuten horiek martxan?

Juani: Bai, nik Allikoa ezagutu nuen martxan.

Juanjo: Ia herri gehienetan zeuden. Allin esaterako, estalpea hor dago, baina perratzekeo egitura jada desagertuta dago. Astitzen beste perratoki bat dago eta Baraibarren ere, baina horiek probatizatu egin dira, nahiz eta herrikoak izan. Uitzin egun dagoena burdinezkoa da, modernoagoa, baina jatorrizkoak egurrezkoak ziren. Bestalde, baziren zenbait herri azienda Lekunberrira jaisten zutenak. Han Luis Erneta ibiltzen zen perratzaile lanetan.

Eta zein izan da egin behar izan duzuen lana?

Ainhoa: Dena garbitu, lixatu eta tratamendua eta barniza eman. Perratoki bakoitzean bi edo hiru asteburu eman ditugu.

Zein animalia perratzen zituzten Larraungo perratokietan?

Juani: Gehien bat behiak eta idiak. Lanerako perratzen zituzten, nekazari lanetan erabiltzeko, gurdiekin

edo goldeekin eta horrela minik ez hartzeko. Perra eredu estandar batzuk saltzen zituzten eta ondoren, perratzailek animalia bakoitzaren azkazaletara moldatzen zuen pieza. Animaliak bertan sartu eta hankak lotu egiten zizkieten, horrela animalia geldirik eta pixka bat altxatuta gelditzen ziren. Normalean perra zaharra kendu eta berria jartzen zieten. **Juanjo:** Gure asmoa gero panel informatibo batzuk jartzea da, kanpotik bisitatzen gaituztenentzat ere politak direlako ikusteko.

Hainbat aurkikuntza ere egin dituzue...

Juanjo: Bai. Besteak beste holozenoko zaldien agin batzuk aurkitu genituen koba batean, Aitzarretan.

Juani: Eta aurkikuntza ez, baina Alliko San Anton baselizako hondakinak ere garbitu genituen eta orain bertara joateko dagoen gurdibidea dugu garbitzeke.

Juanjo: Baseliza hori antza Konbentzio gerran erretakoa da. Zaharrenek diote bertako harri batzuk Lekunberrira ekarri zituztela. Apezetxeko atarian dagoen harri handia hangoa omen da baita Etxarri ostatua zen hartan dagoena ere.



TAXILON
Lontxo Otamendi Artola
661 202 249
(9 plaza)
E-posta: lotamendi5@gmail.com Atallu - Araitz



SOTIL GARAJEA
BETELU
948 513 007
sotilgarajea@gmail.com

**NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA**

URZUBI S.A.
Lekunberri
urzubi@hotmail.com
Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20

GARAJAZ
Zure behar eta ordutegira moldatuko gara

Mate erdi eta goi zikloetarako prestaketa
Fisika (inglesa, euskera)
lengua (kimika, historia)
marrazketa teknikoak
unibertsitate mailako ikasgaiak

948 504 450
648253523

ETORRI ETA INFORMAZIÓNA ZALTEZ!!!

Trikuharriak garbitzen ere ibili zarete...

Juanjo: 30 monumentu megalitiko inguru daude Larraunen, horietatik bi sutarriak edo menhirrak dira, etzanda daudenak, bat Madotzen eta beste bat Oderitzen daukagu. Gainerako gehienak trikuharriak dira, baina tumuluak ere badira. Nafarroako Gobernuaren baimena dugu horiek garbitzeko, baina ezin ditugu harriak ukitu, inguruak garbitu baino ez dugu egiten eta ez da komenigarria landaretza sustraitik eraztea, moztu egiten dugu.

Ainhoa: Oraingoz Baraibarren bi garbitu ditugu, Lapastegi eta Aposta eta Oderitzen lau, Pagamendi, Azolape, Mila-aldapa eta Pikabotz.



Oderitzeko trikuharrien ibilbidea ezagutzera emateko irteera eginen duzue azaroaren 19an...

Juani: Bai, elkarrengandik nahiko gertu daude, oso leku polita da eta herritik gertu. Ibilbidea egiteko bidea garbitzen gabilta orain.

Juanjo: Lau kilometroko ibilbidea izanen da eta lau trikuharri horiek ezagutzeko aukera izanen dugu. Gure asmoa Aranzadiko adituren bat gonbidatzea da trikuharriei buruzko azalpenak eman diezazkigun. Haurrekin egiteko ere zirkuitu erraza izanen da, oinez egiteko oso polita eta oso laua da ia ez du desnibelik. Goizeko hamarrak aldera irtengo gara Oderizko plazatik. Beraz, denak gonbidatuta zaudete!

Zenbat lagun zabiltzate proiektu honetan parte hartzen ?

Juanjo: Zaila da esaten. Taldean eta antolaketan gabiltzanak gutxi batzuk gara, dozena erdi, baina gero herritarrek inplikatzeko dira tarteka. Baraibarren Mikel Huartek asko lagundu zigun, etxarriarrak ere asko inplikatu ziren perratokia garbitzen... Azken batean proiektu honen helburua ondarea zaintzea da eta ondarea denona da eta herrietan geldituko da herriarentzako. Denona den proiektu bat.

Oderizko Pagamendiko trikuharria garbitzen.
Arg: Ondare.

Informazio gehiago:
ondarekulturtaldea@gmail.com



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



BACALAO ELKANO S.L.

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com

LEKUNBERRI

Badoaz...

Amaitzeaz dira aurtengo herrietako jaiak. Joan diren asteetan Uitz, Arruitz, Baraibar eta Lekunberriko jaiak izan genituen eta dagoeneko Gaintza eta Aldazko sanmartinak baino ez zaizkigu gelditzen. Uitzin eta Arruitzen kuadrilla ederra elkar-tu ziren herrian barna egin zuten puska-biltzetan eta Baraibarren herri-kirol saioa eta pilota partidak izan zituzten besteak beste. Lekunberri, haur nahiz helduentzako ekitaldiak antolatu zituzten eta urteroko, patata tortilla, ajoarriero eta kalderete txapelketak ere izan zituzten. Aurten gainera, kuadrilla berberak eraman zuen patata-tortilla eta kalderete onenaren saria. Zorionak!



ARRUITZ



UITZI



Antzonia
BASERRIKO GAZTA

948 513 468
www.antzonia.com
Uztegi (Araitz)

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARAITZ
LARRAUN
JALMENTA ETA KONPONTZER

634 551 743
infoaralar@gmail.com

AUTOZERBITZUA · ARRAINDEGIA · HARATEGIA ·
PATXI GALARZA
Astelehenetik larunbatera
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00
Igande eta jaiegunetan
8:00 - 14:00
Irurtzun

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34

NAFARROA

Alazne Untxalo eta Egoitz Gorosterrazu dira BERTSOKABI-Eugenio Arraiza Sariketako txapeldunak

Alazne Untxalok eta Egoitz Gorosterrazuk irabazi dute Nafarroako Bertsozale Elkarteak lehen aldiz antolatu duen BERTSOKABI-Eugenio Arraiza Sariketa. Joan den hilean Iruñerriko taberna eta areto ezberdinetan izan ziren saioak eta 16 eta 30 urteko 18 bertsolarik parte hartu zuten. Larraungo ordezkari bat ere izan genuen, Aitor Irastortza. Urriaren 20an Barañaingo Lanabe aretoan antolatutako saioan aritu zen bera Saioa Alkaiza bikotekide zuela. Amaia Elizagoien eta Xabat Illarregi eta Saats Karasatorre eta Unai Artiedarekin batera aritu zen. Lanak egin ondoren, Amaia Elizagoien eta Xabat Illarregi izan ziren finalera pasa zirenak.

Urriaren 26an jokatu zen finalean Elizagoien eta Illarregi, Joanes Illarregi eta Ekain Alegre eta Alazne Untxalo eta Egoitz Gorosterrazuren aurka aritu ondoren, azken bikotea izan zen garaile eta bera, lehenengo sariketa honetako txapeldunak.



Aitor Irastortza, Larraungo bertso eskolako bertsolaria, Barañaingo kanporaketan Saioa Alkizarekin.
Arg: Nafarroako Bertsozale Elkarte.

EUSKAL HERRIA

Final laurdenetako lehen itzulian da Julio Soto

Urriaren 28an Bastidan jokatu zen Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalurrekoetako lehen saioa. Sustrai Colinak eskuratu zituen puntu gehien, 705,5 eta atzetik sailkatu ziren Igor Elortza (703), Agin Lauburu (690), Jon Martin (671), Jone Uria (669) eta Nahikari Gabilondo (600). Beraz, bigarren itzulian arituko da Colina eta gainerakoak beste saioen emaitzen zain gelditu beharko dira.

Bigarren fase honek bi itzuli izango ditu eta final laurdenetan sailkatutako 18 bertsolarietako bat bera orain dela lau urte finalista izandako sei bertsolari ari dira parte hartzen.

Leitzan egindako saioaren ondoren final laurdenetan da Julio Soto ere. Azaroaren 4an Maule-Lexarren jokatu den saioan arituko da Beñat Gaztelumendi, Nerea Ibarzabal, Etxahun Lekue, Beñat Iguaran eta Nerea Elustondorekin batera.

Lehen itzuliak beste bi saio izanen ditu, azaroaren 1ean Iruñen izanen dira, Aitor Sarriegi, Maialen Lujanbio, Alaia Martin, Aimar Karrika, Maddalen Arzallus eta Unai Agirre. Eta Durangon berriz, azaroaren 12an, Aitor Mendizule, Oihana Iguaran, Miren Amuriza, Iñaki Apalategi, Jon Maia eta Miren Artetxe igoko dira taula gainera.

Informazio gehiago:
www.bertsozale.eus

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitaratekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)
948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com

German Lasarte
ARBEONDO
HARATEGIA
Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

aitz berri

edertasun zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890
948 513 083
696 732 290
aitzberri@hotmail.com

“Herrien arteko elkartasuna beharrezkoa da”

Mikel Betelu lekunberriarra abuztuan Bolivian izan zen Askapenak antolakundeko brigadista internazionalista gisa. Beste 3 kideekin batera egin zuen bidaia. Boliviako aldaketa prozesua bertatik ezagutu eta harremanak egiteaz gainera, Euskal Herriko askapen prozesua ezagutarazteko helburuarekin joan ziren.

Zer egin duzue ia hilabeteko bidaia horretan?

Eremu ezberdinetan lanean diharduten eragileekin egon ginen, hasi gobernuko kideekin (ministerio ezberdinetako jendearekin), MAS (Movimiento al Socialismo) mugimenduko jendearekin, eragile sozialekin (mugimendu feminista, kulturalak...), jatorrizko herrietako jendearekin (Aimarekin bereziki) etab. Informazio asko bildu dugu eta baita harreman berriak ere, Euskal Herria eta Boliviaren arteko loturak indartuz.

Zein da gaur egun Boliviak bizi duen egoera politikoa?

Momentu honetan aldaketa prozesuan sakontzeko daudela ikusten da. Boliviak aberastasun handia dauka (gasa, litioa, etab). Estrategikoak diren sektoreak publikatu dituzte. Hidrokarburoetan adibidez, lehen irabazien %20 herrialdean geratzen zen eta gainontzeko %80 kanpora joaten zen. Gaur egun alderantzizkoa da, eta politika sozialen ondorioz jadanik nabarmen aldatu da herrialdea. Muturreko pobrezia %36,7tik %16,8ra jaitsi da eta aberatsen eta pobreen arteko aldea nabarmen txi-

“Gutxieneko soldata bost aldiz igo da Bolivian”

kitu da. Bestalde, gutxieneko soldata bost aldiz igo da, 440 bolivianotik (62 euro) 2000 bi-ra (285 euro). Inbertsio publikoa ere 10 aldiz handitu da. Honekin batera aurrerapen handia egin da jatorrizko herrien aitortzari (36 herri indigena daude) dagokioenez, nazio aniztasuna konstituzioan sartuz eta arautuz.

Evo Moralesen lehendakaritzarekin jendeak espero zuen aldaketa hori iritsi al da?

Aldaketa iritsi aurretik inperialismoak (AEB, FMI, Europar Batasuna,...) kontrolatutako gobernuak zeuden, kolonialismo ekonomiko-kulturala pairatzen zuten boliviarrak eta egoera oso txarra zen, arrazismo eta ustelkeria handia zegoen. Aldaketa egitearekin aurrerapausoak eman dira eremu ezberdinetan, baina ez da



Bolivian, Che Guevara hil zuten herrian, izan da Mikel Betelu.
Arg: Mikel Betelu.

nahikoa. Jendeak jadanik barneratu ditu orain 13 urte hasitako prozesuaren lorpenak. Eta nire ustez, beste eskaera eta planteamendu batzuk eskatzen ditu gizarteak. Argi dago horri erantzuten badiote eta aldaketan sakontzen badute herriarekin batera, lortuko dutela prozesuarekin aurrera jarraitzea.

Che Guevara hil zuten lekuan ere izan zinen. Zer diote han pasarte horri buruz?

1966an iritsi zen Che Boliviara, handik iraultza kontinente osora zabaltzeko asmoarekin. Garai hartan Bolivia diktadura baten menpe zegoen. Che hainbat kubatarrekin batera Boliviako Askapen nazionalean sartu zen eta 1967ko urriaren 9an, orain 50 urte, Boliviako La Higuera herrixkan hil zuen Boliviako armadak, AEBetako CIAren laguntzaz. Pasarte asko daude kontatzeko, baina ni ideia batekin gelditu nintzen, bereziki: herriaren arteko elkartasuna beharrezkoa da, munduko zapalduak altxa eta zapaltzaileen aurrean askatasuna lortuko balute, herri eta pertsona askez osatutako mundua eraikitzeko hurbilago gaude.

Zeintzuk dira Boliviak egun dituen erronka nagusiak?

Nire ustez beraien herriaren behar eta nahietara egokitutako sistema politiko-ekonomiko-kultural eta soziala eraikitzeko erronkan sakondu behar dute. Bizitza emakumearen,



Gizarte erakunde ezberdinekin elkartu ziren. Arg: Mikel Betelu.

indigenaren, langileriaren... ikuspuntutik pentsatuz, kosmosarekin oreka mantenduz. Eta horretarako beharrezkoa da bizitza eta bizitzaren erreprodukzioa oinarri dituen politika, kultura eta ekonomia garatzea. Bolivian ongi bizitzearen baloreak konstituzioan jaso zituzten. Ongi bizitzea bizitza filosofia da, eta erronka nagusia balio horiek praktikara eramatea da.

“Herriaren behar eta nahietara egokitutako sistema eraikitzeko erronkan sakondu behar dute”



●● Aiora Irastorza, June Ortiz eta Nora Unanua.

“Emaitzak ez dira inoiz izan gure helburu nagusia”

Aiora Irastorza, June Ortiz eta Nora Unanua. Beti Kozkorreko erregional mailako taldeko jokalaria dira eta aurten sortu berri den Futbol 8 taldeko entrenatzaile lanetan dabilta.

Futbolen noiz hasi zineten?

Aiora: Hamar urterekin hasi ginen.
Nora: Xabi Lasarte eta Xabier Zabaleta genituen entrenatzaile. Gu mutilekin batera hasi ginen, ekipo misto batean. Nesken talderik ez zegoen orduan. Areto futbolearen bazen nesken taldea baina zelaian jokatzeko zuten nesken talderik ez zegoen. Lehenengo urte hartan bost neska hasi ginen.
A: Bi urte mutilekin batera egin genituen eta hirugarren urtean nesken taldea sortu genuen.
N: Kuadrillako lagunak animatu genituen eta...

Hau bigarren urtea duzue erregional mailan...

A: Bai eta 18 neska gabilitza taldean. Nafarroako Federazioak antolatzen duen Liga jokatzeko dugu. Irailean hasi ginen eta ekainaren hasieran amaitzen da.

Iaz zer moduz bukatu zenuten denboraldia?

A: Oso gaizki, azken-aurrekoak bukatu genuen. Baina ez zaigu asko inporta, emaitzak ez dira inoiz izan gure helburu nagusia.
N: Ongi pasatzera etortzen gara eta futbola guretzat erronka bat da,

taldean aritzea, ongi jokatzeko eta denen artean ikasten joatea.

Nor duzue entrenatzaile?

N: Beteluko Aitor Goikoetxea eta Lekunberriko Iñaki Saigos.
A: Hobetzen gabilitza, nabaritzen da hobekuntza.

Eta entrenatzaileekin zer moduzko harremana duzue?

N: Oso-oso ona.
A: Asko ikasten ari gara.
N: Bai, nabaritzen da eta gainera konfiantza handia daukagu zerbait ongi iruditzen ez bazaigu esateko.

Astean bitan izaten dituzue entrenamenduak...

A: Bai, asteazkenetan eta ostiraletan izaten ditugu eta ordu eta erdiko saioak izaten dira.
N: Normalean beroketa eta partidu modukoak jokatzeko ditugu. Beste batzuetan ariketa ezberdinak, estrategiak... Partidura begira lantzea komeni zaigunaren arabera izaten dira.

Eta aurtengo denboraldia zer moduz hasi duzue?

A: Jokatzeko horren gaizki ez! Baina



ASEGURU AHOLKULARIAK

Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa



NEKAZARRI, S.L.

Kubota
STIHL

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarri@hotmail.com

ANTONIO CARRARO



BIDEGOX JATETXEA

Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com

oso zorte txarra daukagu eta emaitzak ez dira onak. Nahiz eta partiduan bat egin beti galdu egiten dugu.

N: Kosta egiten zaigu gola sartzea.

A: Ez dugu modu onenean hasi, baina hobekuntza baten esperoan gaude.

N: Euria egiten duen bakoitzean irabazi egiten dugu!

Beraz, ea behingoz euria egiten hasten duen...

N: Bai! [Kar, kar, kar...].

Aurten F-8ko nesken taldea entrenatzen hasi zarete...

A: Bai. Talde hori aurten sortu da. Gu bere garaian infantilen kategorian hasi ginen eta erregionalera pasa ginenean, klubak beharrezkoa ikusten zuen jarraipena izango zuen talde hori mantentzea. Gure taldeko jokalariei entrenatzaile lanak egiteko proposamena egin ziguten eta gu hirurok animatu egin ginen.

J: Hamalau jokalaria daude, bederatzita eta hamalau urte bitartekoak.

Eta zer moduz moldatzen zarete entrenatzaile lanetan?

A: Ongi, uste baino hobeto.

J: Hasieran txintxoago portatzen ziren. [Kar, kar, kar...]

N: Bai orain konfiantza hartu dute eta.. Hasieran euren artean ere ez ziren ezagutzen. Baina ongi zaharrenek badakite errespetatzen eta guk hitz egiten dugunean isiltzen.



Eta saioak zuek prestatzen dituzue?

A: Hasieran hori zen nik nuen beldurra, nola entrenatu ez jakitea. Baina guk zazpi urte daramatzagu futboleko eta guk behin eta berriz egin ditugun ariketak dira eta horretan oinarritzen gara. Askotan klasean prestatzen ditugu entrenameduak.

N: Bai filosofia eta matematikako klaseetan! [Kar, kar, kar...]. Adin horretan helburua jolastea da eta baloiarekin ibiltzen ikastea.

J: Jokoren bat edo paseak egiten ditugu hasieran eta gero partidua,

hori da gehien gustatzen zaiena.

A: Maila ezberdinetako pertsonak daude eta entrenamenduak denentzako egokitu behar ditugu. Hurrengo astean hasiko dira Ligako partiduekin. Partiduekin hasten direnean akatsak zuzentzen jakitea izanen da zailena.

N: Lehenengo egunetik ikusten da zeinek duen futbolerako gaitasuna eta nor datorren ongi pasatzera. Baina denak beharrezkoak dira, bai joko ematen dutenak eta baita taldean giro ona jartzen duten horiek ere.

Hostal Betelu

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak

Etorri eta on egin!

Erreserbak: 948513026 618557889

AMAIRU bar

ETXEGO PIZZAK.
KOPA BERGIZAK

948504352

Kantina Rock

948 60 48 21

KANTINA
bokatak, platerak eta...musika.....

LARRAUN

GARABI ZERBITZUA 24 ORDUZ
MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA

Gruas y Talleres LARRAUN S.L.

Lekunberriko industriagunea,
21. nabea
31870 Lekunberri
Nafarroa

Mugikorra: 626 494 356
Telefonoa: 948 507 229
Faxa: 948 507 281
gtlarrapun@gmail.com



Maxala

*1, 2, 3... hiru frute jan behar omen dee gutxinez eunean. 4, 5, 6... aldiko sei in-
txaur baino gehio jatea ez omen da komeni. 7, 8... ordu hoik segidan lo in ez-
keo ez giñuke gaitzik. 9, 10... kontue galduot dauneko. Behatsetako aantzak
kentzen hasi eta ezin bukatu, baño hamar badee gutxinez. Ttikik dee gehinak
baño aluk, haundinak bezalaxe ziztatzen due axala.*

*"Goe garaian maxala iiltzen giñun da ez giñen batee pintxatzen", -ondotik.
Izorrai, ta nik maxala bazenik ee jakin ez! Lurrean daudenakin aski ez eta
moskotsetik atea behar horrek hoixe do. Asko daukenak, gehio nahi; zakue
gaztañez bete-bete, eta halai gehio nahi.*

*Ttikik eta haundik, denak zakure. Ttikik, haundik, bareak hozkatuk ta dudekoak,
denak saskire. Ttikik, haundik, dudekoak eta dudik barekoak, denak karrora.
Hasi a udazkeneko joanetorrie; hasi a trafikoa eta hasi dee trafikanteak. Guun
basoak eta baso inguruk aparkaleku bihurtu dee. Autoa, hoixe baita uxarrean
dailenan ageriko arrasto bakarra.*

*Basurde bille, hanka gorrin babesleku deen xixe hori, gorri, urdin edo dena
delako onddoan bille, o gaztain bille. Udazkenean denok bihurtzen gea ehiz-
tari, denok furtibo. Izan ee, izenak kontrakoa esateo baño aorra (urrie) da hilik
oparona, bada ze bildue baztarretan.*

*Maxala ibiltzen zuen garai batean gaztañe moskots eta guzti biltzeko, hala
gehio irauten baitzuen ganbaan. Bi urritz makillekin indako pintze mouko
at da maxala. Oain guanteak ibiltzen dee, lapurrek bezala. Etxeko gaztañeire
joan, da ba omen zeen hamalau, baño gertuatu ta lau. Galtza gorrin bat ibilliko
zen negueko pille itten. Basurden bat bestela, lepo in arte jan eta geo uxarrean
muturre azkatuz. Ez, eztoz uste, ongi zerrie da basurdea hortan.*

*Guante zurikin bilduko zittun ditxosozko galtza gorriek guun gaztañeiko perla
beltxak. Halai badau denontzako aña... Galdue da maxala, earki zulatue nere
eskutako axala. 2, 4, 6, 8, 10, 12...kontue galduot berrize. Eseialdi bakarreako
gehitxo igual, baño ze gozoa udazkeneko aurreneko gaztain jana!*

Pl@ntNet



Mendian zabiltzala landare bat ikusi eta zer ote den jakiteko kuriositatea duzu? Pl@ntNet aplikazioak horretan lagun zaitzake.
Orain dela urte bat, zientzialari frantses batzuk, laneari jarri ziren jendearen behar hau asetzeko eta aplikazio hau sortzea bururatu zitzaizkien. Honek, datu base erraldoi bat dauka eta bertan daude sartuta hainbat landareren izenak, datuak, erabilerak... Aplikazio honek erabileraz eta praktikoa dauka. Play Storetik deskargatu eta instalatu ondoren, prest egongo da erabiltzeko. Mugikorrek argazki kamera edukitzea beharrezkoa da aplikazioa erabili ahal izateko.

Xanti Saigos

Landare edo lore baten informazio jakiteko, argazkia ateratzearekin nahikoa da. Aplikazioak, argazki hori bere datu basearekin konparatu eta momentuan informazioa aterako dizu.



digitala
smart
bidali ikusi
ortekatu
app
download

“Elkarteakin daukeun helburutako bat herria dinamizatzea da”

Nola erabaki zenuten elkarte sortzea?

Iñaki: Idea betidanik izandu da, hongo urte atzera beti esaten zen hemen elkarte bat behar zela. Oain dela zortzi eo hamar bat urte bozketa moduko bat ein zen eta baiezkoa atea zen, beño hortxe geatu zen.

Josu: 2015eko udaberrin utzi zuen ostatue azkenak eta negu hortan hasi ginen hizketan zerbatte planteatu beharra zeola. Tarteko hauteskundeak eondu zeen eta talde berrie atea zen. Alde batetik, Kontzejuk hau martxan jartzeko interesa zun eta bestetik herritar batzuk hemen elkarte bat eitteko konpromezu haundigoa zuen. 2016ko urtarrileko batzarrara aiatu zen eta gaie atea zen.

I: Batzuk itxita uzteko esaten zuen eta guk esaten giñun erabilera bat eman beharra zitzaioa. Ostatu bezala nahiko segidan eondu zen martxan, beño ez zun funtzionatzen.

Geroz eta gutxigo gaude herrin eta ez dao moimentu nahikoik. Gañea hemengo jendea ez da tabernazalea, ez dao ohittureik.

“Oaindik lehenengo urtea da eta ohitture hartzen joan behar da”

Eta orduan herri galdeketa bat egin zenuten...

J: Bai, bi batzarren ondoren herri galdeketa bat ein zen eta 64 bototatik denak aldekoak izan zeen bat izan ezik.

I: Galdera zen ea utziko luketen kontzeju etxea elkarte eitteko.

J: Eta baiezkoa atea zenean, etxez etxe hasi ginen deiketak eitten. Urte bete eta gutxin elkarte martxan jarri

giñun. Obra 2016ko udako einda ze goen gehina.

Lokala guztiz berritu duzue...

I: Bai, dena garbittu da, lurre puskatu da hormigonatu, mostradore berrie, tetxue... Obra zibille kontzejuk ein du eta beste zati bat bazkidek. Kontzejuk obra haundina ein zun, eta alokairun jarri zun, ez da zesio bat izan. Hala erabaki zen Kontzejun, bestela hemen elkarte bat eitteko bakotzak 2.000-3.000 euro pattuta ez zen inor sartuko eta horrela asko errexten dezu. Oain kuotan barrenen alokairue sartzen da.

Zenbat bazkide zarete?

J: 37, 22 bazkide eta 15 apendiz. Iku si giñun ez zela oso inbertsio haundie ein beharko eta elkarte honek behar zuna zen hileroko kuota bat mantendu ahal izateko. Bikote baten kasuan, biek sarrera kuota ordaindu beharraz ez zun gehiegi errexten eta hala eittea erabaki giñun. Apendizeak dienak ezin due batzarretan bozkatu, beño hileroko kuota denek ordaintzen dute berdin-berdin eta eskubide eta obligazio berdiñek daukie.

Zer moduzko martxa izan du elkarteak lehenengo hilabete hauetan?

J: Hasieran arraroa zen, jendeak ez zekin etorri edo ez baino jada jendea hasi da naturaltasunez sartzen.

I: Egie esan, nik uste baino askoz hobeto dabil. Asten zehar koadrille afarik izaten die eta asteburutan e emakumek etortzen die kafetxoa hartzea...

J: Eta jubilatuk e asten zehar tarteka gosarin bat eitten due... Ongi, oaindik lehenengo urtea da eta ohitture hoi hartzen joan behar da. Gaina elkarte hau ttikie, berotzeko errexa eta oso praktikoa eta negun elkarte haundik baino goxogoa da. Gehie nez 50 lagun kaitzen dee.



Hainbat otordu egin dituzue da-goeneko...

J: Pestetan guk geuk kudeatu giñun. Afarik eta bokadillok eman genittun eta San Joan bezperan e afarie ein zen, 35 lagun eo elkartu ginen.

I: Eta urrin 21en gaztain jatea euki giñun, 43 laun elkartu ginen ordun eta azaroan 18n, babarrun jatea einen da herri guzintzako.

J: Elkartea sortzekoan giñun helburutako bat zen herritarrek elkartzea eta dinamizazio punttu bat ematea.

Eta herria nola ikusten duzue gaur egun?

J: Herri gehinak bezala hiltzen gutxinaka-gutxinaka.

I: 72 gaude erroladatuta eta jende edadetu asko dao. Garai baten hama-bost bat gazte bagiñen herrin.

J: Gutxi batzuk ga hemen bizi geanak eta herrie ongi ikusi nahi du eta gu gutxinez gustoa eon. Badaude gauz batzuk guk ezin ditteunak erabaki, guk ezin du ezer ein etxebizitzan egoerakin, beño bestela ahal den heinean gauzek eitten joango ga.

I: Beño pena da, gazte asko Betelua eta Lekunberria joan dia bizitzea komodidadeangatik eta udalak jartzen

dittun oztopoangatik. Errazkinen baserri bat baldin baukezu, nahiz eta zurea izan, konpontzeko oztoppa besteik ez dago.

Larraungo Udalak hirigintzan oztopo gehiegi jartzen ditu?

J: Jende asko atzea botatzen da ezin dittekelako. Bada herriko jendea ez duna eskubideik hemen bizitzen gelditzeko, ez dulako gaitasun ekonomikoik baserri bat altxatzekoa eta gainea ez du baserri haundi bat behar!

I: Larraungo hirigintza plana guziz zaharkituik dao. Gaur eun ezin zie ezta aluminiozko lehioak e jarri, gaur eun dauden materialakin... Gauze bat da herri itxura errespetatzea beño...

J: Eta etxeak bi solairu euki beharra dauzkie nahi ta nahi ez eta horrela bikoizten ai za etxe baten prezioa. Gazte asko gaude ta gehinak gurasoakin bizi die oaindik, hoik e irteeran bat beharko due eta nik uste bati beño gehiagori irteera errex bat ematen badiozu hartuko dula. Larraunek oaintxe bertan etxebizitzaren arloan ez dio be biztanleri ezer eskaintzen!

*Urte luzez ostatua izan eta gero, joan den apirilaren 30ean estreinatu zuten errazkindarrek herriko elkar-
tea. Pixkanaka geroz eta gehiago dira bertan egiten dituzten otorduak. Joan den hilean antolatutako gaztain-jatean ia 50 lagun elkartu ziren. Azaroaren 18an, larunbata, babarrun-jatea eginen dute. Iñaki Malkorra eta Josu Orejarekin izan gara, Kontzejuko lehendakariarekin eta Txirrika elkarteko lehendakari ordearekin.*

M. Angeles Urrizalki

**iragarkiak,
berriak,
eskelak...**

Diario Vasco eta Diario de Navarra Korresponsala

**948513056
699179437**



Atabal
okindugio

Era askotako
ogiak eta gozoak

Etkez etxe
banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...
948513151

MAITE
harategia



BERTAKO HARAGIA
Txistorra, txorizoa,
saltxitxak,
sukaldaturako platerak.
Etxera eramateko
zerbiltua ere eskeintzen
dizugu.
Antigua Kalea N°7
31890 BETELU
Telf: 948 51 30 88
maiteharategia@hotmail.com

LARRAUNGO UDALAK ONARTUTAKO MOZIOA

“Kataluniarekin bat demokraziarekin bat”

1. Udal honek, zilegitasun osoa aitortzen dio Kataluniako Parlamentuak egingo duen autodeterminazio erreferendumari. Izan ere, libreki adierazitako herritarren borondatea da tresna politikorik eraginkorrena edozein herri edo kolektiboren etorkizuna eraikitzeko.

2. Udal honek, Kataluniar herriaren eta Parlamentuaren erabaki burujabeen aurka Espainiar estatutik buruturiko erasoak salatu eta arbuiatzen ditu. Madrilgo Gobernua, epaitegiak eta Auzitegi Konstituzionala ezin direlako Kataluniako herritarren gehiengo zabalak adierazitako borondate demokratikoaren gainetik jarri.

3. Modu demokratikoan aukeratuak izan diren Kataluniako alkateak deklaratzera deitzea irmoki salatzen dugu. Demokrazia praktikan jartzea ahalbidetu nahi duten alkateak inputatzea deitoratzen du.

4. Udal honek, Euskal Herria, Katalunia edo munduko gainerako herrietan, herritarren borondate askean oinarrituta garatzen dituzten prozesu politikoek alde egiteko konpromisoa hartzen du.

5. Udal honek urriaren bateko emaitza errespetatzen du eta Instituzio zein eragileei ere berdin egitea eskatzen die. Horretarako erabaki honen berri, Kataluniako Parlamentuko lehendakariari, Madrilgo Gobernuako presidenteari eta Auzitegi Konstituzionaleko presidenteari ematea erabakitzen du. Gure udalerriko herritarrei ere jakinaraziko zaie erabaki honen berri.

TEEH BANDAREN BILA GABILTZA
EZIN ERABILEZKOAK, BAINA BERRESKURAGARRIAK
LAGUNDU HARRAPATZEN

Plan de Residuos de Navarra 2017-2027 Nafarroako Hondakinen Plana

Birziklatzeko ere izango da aurten **Black Friday** eguna, ez soilik erostekoll!

Tresna Elektriko eta Elektronikoen Hondakinen (TEEH) I. Bilketa Lehiaketa

AZAROAREN 24TIK ABENDUAREN 1ERA, HURBILEN DUZUN DENDAN

Parte hartu kanpainari atxikitako eta TEEHren kudeaketari lotutako Nafarroako merkataritza-estabzimenduetan eta **LAGUNDU EZAZU HARRAPATZEN**, ebetresna elektriko biki eta handiak, kontsumo apalekoak, informatika- eta telekomunikazio-ekipoak, argiztapenekoak, argiztapen-tresnak, tresna elektrikoak... Oinarriak hemen ikusgai: <https://gan-nik.es/concurso-de-recogida-de-raee-2017/>

DENDAN TRUKATZEKO TXARTELAK IRABAZI AHALKO DITUZU, ETA INGURUMENA ZAINTZEN LAGUNDUKO DUZU

Ekimena: Laguntzaileak:

AMBILAMP

GAINTZAKO SAN MARTIN JAIK

10 | OSTIRALA:

20:30 Martintxoren jaitsiera
 21:00 Herri afaria Sonbelu elkartean
 00:30 DJ Txoko. Ondoren, bakailao festa!!!

11 | LARUNBATA (SAN MARTIN EGUNA):

12:00 Meza Nagusia San Martin elizan eta hamai-
 ketakoa trikitilariekin alaiturik.
 17:00 Merendola txokolatadarekin eta ume-jolasak.
 19:00 Harri-jasotze eta ingude erakustaldia.
 Ondoren, Pintxo-potea.
 21:00 Afari autogestionatua Sonbelu elkartean.
 00:30 Gabezin taldea. Ondoren, musika goizaldera
 arte!

12 | AZAROAK 12, IGANDEA:

12:30 Hamaiketakoa.
 Ondoren, bertsolariak: Bixente Gorostidi eta Unai
 Muñoa.
 18:00 Pituxa clowntu kontari.

ALDAZKO PESTAK

10 | OSTIRALA:

12:00 Suziria eta ezkil-jotzea
 12:30 Patata-tortilla txapelketa, ondoren bazkaria
 17:30 Herriko mus txapelketa
 22:00 Afaria ostatuan
 00:30 Gaupasa "D.J. Bull"

11 | LARUNBATA "SAN MARTIN DEUNA":

11:00 Meza nagusia
 11:30 Erronda etxez etxe "Iraunkorra" txarangarekin
 17:00 Puzgarriak frontoian
 19:00 Txokolate jatea eta Maksim Zestau Magoa.
 20:30 Sagardo festa.
 00:30 Gaupasa "D.J. Bull" eurre!!!!!!

12 | IGANDEA:

07:00 Gosaria. Urdaiazpiko-xerrak tomatearekin 5€
 09:30 Diana Larraungo txistulariekin
 13:00 Euskadiko III mailako aizkora finala.
 17:00 Larraungo pilota goxuaren finala
 19:00 Bertsolariak: Julio Soto eta Amets Arzallus
 20:00 Pintxo pote elkarteko tabernan

SALGAI

- Txerri gizona salgai! Harremanetarako: 948 504 308.

- Lekunberrin 90 metro karratuko etxe adosatua salgai, 3 logela, sukaldea, egongela, bi bainu, garajea eta terraza. 190.000 euro. Harremanetarako: 679 631 725 (Aitor).

- Volkswagen California Coach T4 salgai. 2.5Tdi 5 zilindroak 102cv. Nazionala. 340.000Km. Oso ongi zainduta, beti garajen. Extra askoekin (bizikletak eramateko euskarria, toldoa, aurreratze sistema, berogailu estatikoa, bihurgailua...). Argazki eta informazio gehiagorako jarri zaitetz harremanetan: 630 041 480. .

BESTERIK

- Esperientzia duen Lekunberriko irakaslea arratsaldetan eskolaz kanpoko laguntza emateko prest. Lehen eta Bigarren Hezkuntzako edozein mailatan, euskaraz zein gaztelaniaz. Interesa izanez gero, deitu telefono zenbaki hauetara: 617843925 / 948386678.

- Pianoa jotzen hasi nahi baduzu, nire etxean, Lekunberrin, klaseak eskaintzen ditut. Anima zaitetz eta deitu 636 390 356 telefono zenbakira. (Luci).

Merkatu Txikian iragarki bat jarri nahi baduzu idatzi mailope@labrit.net-era.





2017ko AZAROAren 16an
LEKUNBERRIKO KIROLDEGIAN
18:00etan

*Zatoz eta izan zaituzte
Ibarberri komunitatearen parte!*